

BEZERO ERLAZIOAK

Animalien Erresuma, gure bezeroekin harreman hurbila eta eraginkorra izatea dugu helburu, eta horretarako komunikazio-kanal desberdinak erabiltzen ditugu, bakoitzak harreman mota zehatz bat ematen:

1. Denda Fisikoa (Eibar): Eibarren dugun denda fisikoa bezeroek zuzenean bisitatu ahal izango dute, eta bertan gure zerbitzu guztiak azalduko dizkiegu. Harreman hurbil eta pertsonal bat sortzen da denda honetan, bezeroek maskoten zaintzan erabiltzen ditugun prozedurak zuzenean ikusi eta maskota bakoitzaren beharrei egokitutako aholkua jaso dezaten. Honela, fidagarritasuna eta konfiantza lantzeko aukera dugu.



2. Txartelak (Dendan eta etxeetako postontzietan): Eibarreko etxeetan banatutako txartelen bidez, Animalien Erresuma ezagutzera ematea eta kontaktua erraztea lortzen dugu. Bezeroek txartel hauetan gure sare sozial eta kontaktu guztiak aurkituko dituzte, gure informazioa eskura izateko. Nahi duten momentuan gurekin harremanetan jartzeko modua ematen dugu.

3. WhatsApp: Komunikazio kanal azkar bat izanik, WhatsApp bezeroekin erantzun zuzena eta berehalakoa izateko aukera bikaina da. Bezeroek gurekin, maskotei buruzko galderak egin, eta zerbitzuak kontratatu ahal izango dituzte kanal honetan. Berehalako arreta honek bezeroek konfiantza handiagoa izatea ahalbidetzen du, eta Animalien Erresuma erraz eta eroso eskura izatea sentiarazten die.

4. Instagram eta Facebook: Sare sozial hauen bidez Animalien Erresuma-ren irudia eta izaera erakusten dugu, gure zerbitzuak, maskoten zaintza eta instalazioak modu bisual batean aurkezten ditugu. Argazki eta bideoek gure komunitatearekin harreman emozionala sortzen dute, eta maskoten ongizatea guretzat lehentasunezkoa dela ikusarazten dugu. Gainera, promozio eta nobedadeen berri emateko bide aproposa da, eta bezeroek gure zerbitzuen inguruko azken berriak eta eskaintzak beti eskuragarri izango dituzte.

5. Posterrak (Eibarreko kaleetan): Kaleetan jarriko ditugun posterrek Animalien Erresuma-ren ikusgarritasuna handituko dute, eta hiri mailan marka ezagutarazteko aukera emango digute. Poster hauek gure enpresari buruzko informazioa izango dute, Eibarreko komunitatearekin konexioa sortzeko eta Animalien Erresuma hemen dagoela, maskoten ongizateaz arduratzeko prest, jende gehiagok jakin dezan.